www.amaraberri.com

ABE

Amara Berriko Egunkaria

36.zk

2011ko martxoaren 8a

egileak:
Ricardo,Laila,Jorge eta Iñaki

a g u r r a

Kaixo gu Ricardo, Laila,Jorge eta iñaki gara. Espero dugu ABE hau zuei gustatzea. Oso ona da ikusi!!!

INAUTERIAK ESKOLAN

Martxoaren 4ean inauteriak ospatu genituen eskolan . Jantzi oso originalak zeuden , adibidez : 3 cuadro 9 UNO eta askoz gehiago . 14:30etan areto nagusira jeitsi ginen parodiak egitera eta ikustera . Parodiak oso politak izan ziren . Parodiak bukatu ondoren, patiora joan ginen irakasleen parodia ikustera (Oriok tranpa egin zuen, baina beno...) Bukaeran, txokolatada ederra izan genuen. Denak oso ondo pasa zuten.

KOADROAK IRABAZLEAK

Naia, Saioa eta Paulak (koadrotaz mozorratuta) irabazi zituzten bi lehiaketa inauteritetan. Arccoren lehiaketan diploma eta antifaza bat irabazi zituzten. Trinidadeko plazan (Alde Zaharrean) bi sarrera ostegunean Lagun Aro VS Madrid saskibaloi partida ikusteko irabazi zuten.

a u r k i b i d e a

1.- portada:inauteriak
2.- inkesta:Zer izan nahi duzu handitan?
3.- elkarrizketa:Beñat eta Mikeli
4.- kontu kontari:Tento y el mar
5.- gu ere idazle:Sopa de letras
6.- lumaren kilima:Deskribapena
7.- saski naski:Deskribapen majikoa
8.- denborapasak:Igarkizunak

amaraberrifer.abe@gmail.com

ELKARRIZKETA

BEÑATI



Zein da zure kirolik gustokoena?
-Arrauna
Norbait gustazen zaizu?
-Bai, Usue
Zein da zure klaserik gustokoena?
-Arte
Zein da zure kolorerik gustokoena?
-Gorria
Zein da zure irakaslerik gustokoena?
-Begoña
Zein da zure aldizkaririk gustokoena?
-ABEa
Zuretzat zein izan zen inauteriko mozorrorik hoberena?
-Unoren kartak.

MIKELI

Zein da zure kirolik gustokoena?
-Futbola
Norbait gustazen zaizu?
-Casalarreinako neska bat (Leire)
Zein da zure klaserik gustokoena?
-Euskera
Zein da zure kolorerik gustokoena?
-Laranja
Zein da zure irakaslerik gustokoena?
-Juales
Zein da zure aldizkaririk gustokoena?
-Marca
Zuretzat zein izan zen inauteriko mozorrorik hoberena?
-Unoren kartak

eguraldia

eguzkia

Tenperatura:14º
Zerua:Oskarbi
Lurra:Lehorra
Haizea: Barea
Euria:Ez du ari
Presioa:1014 mb
Gaurko prebisioa:Eguraldi ona egingo du

ESAERA ZAHARRA:Bostak eta elurra,txerria hiltzeko eguna.

GAUR eta HEMEN

LEIRE ESKOLATIK BADOA

Ostiral honetan Leire eskolatik joango da.

Leire eskola honetan egon zen ikasten eta aste hauetan asko lagundu digu: Prentsan, Irratian, Txikiweb eta Telebistan.

Oso ona izan da gurekin. Guretzat hoberena izan da,

Leire, ez zaitugu inoiz ahaztuko.

AGUR LEIRE¡¡¡¡¡¡



I N K E S T A

Zer izan nahi duzu haunditan eta zergatik?

Futbolaria, futbola gustatzen zaidalako.

Medikua, jendeari laguntzen diozulako.

Informatikoa, ordenagailuak ondo ematen zaizkidalako

Futbolaria, oso ona naizelako.

Bideojoku sortsailea, bideojokuak asko gustatzen zaizkidalako.

Futbolaria eta informatikoa, diru asko irabasten dutelako.



Porteroa eta elektrizista, etxe ona izango dudalako.

Dentista, diru asko irabasten delako.

Abeslaria eta aktorea, gustatzen zaidalako.

Irakaslea, jendeari irakatsi nahi diedalako.

Inkestaren emaitza:
Lau lagunek futbolaria izan nahi dute



TENTO Y EL MAR

Un día Tento y Rolo fueron a la playa con un montón de prisa y el mar se fue para dentro. Entonces se pararon a descansar y cuando volvió el agua fueron a todo correr y acabaron rodando y al fin terminaron tocando el agua.

Egilea:Gorka Barros

Txisteak

Marrazkiko haginlari edo dentista honek aurkitu du modua umeak pozik joan daitezen berarengana: urpistolarekin garbitzen die ahoa.

- Joxe- esaten dio Patxik tartamutua den lagunari -zergatik ez haiz hitz-totolentzako eskola berezi batera joaten? -Baina zertarako? Ondo asko egiten diot nik hitz totelka.

egilea: Unai Vea

Hizki zopa

Países de América
En esta sopa de letras hay países de América. Están escritos de izquierda a derecha, de arriba a abajo y en diagonal.

U	H	A	P	E	R	U	L	A	R
G	S	B	R	A	S	I	L	H	G
U	S	A	P	X	Z	A	J	C	A
A	Y	M	U	A	S	C	E	I	H
T	I	E	L	K	N	L	N	G	C
E	A	X	A	G	I	A	B	O	A
M	G	I	M	H	M	V	M	L	N
A	U	C	C	E	C	U	B	A	A
L	R	O	L	H	A	I	T	I	D
A	U	A	E	C	U	A	D	O	R

egilea: David Ijurco

deskribapen magikoa

Nik deskribatuko dudan lekua txokolatezko da. Mediterraneoan dago Salouen ondoan eta leku lasaia eta turistikoa da.

Luzeraz 10km neurtzen du eta zabaleraz 5km. Bost hotel ditu bat bost izarrakoa eta bestea zazpikoa. Bost izarrekoa ¨Lujur Choco¨ deitzen da eta bestea ¨Costa Chocolatera¨. Chokolatezko pistinak daude eta normalak ere bai, ondoan berriz akuapark bat dago eta 1000 tobogan eta txirristak ditu.

Turistak oporretara hara joaten dira hondartza dagoelako eta leku oso dibertigarria delako.

egilea:Nora Royo

DESKRIBAPENA

Animali bat deskribatuko dizuet, txikia eta marroia da.

Animali hau zuhaitzetan egon ohi da. Animaliak pinaburuak, intxaurrak eta horrelakoak jaten ditu.
Animali honek isats potoloa du eta begi beltzak izaten ditu, azkazalak eta hankak ez ditu luzeak izaten. Ile motza eta bigotea izaten du. Animali hau mota askotakoa izan daiteke, batzuk ileen kolorea laranja dute, besteak marroia, beltza... bizkarrean marra ilun bat izan ohi du. Bere etsaiak azeria, lepahoria, basakatua, katagineta eta aztorea dira.

4-7 kume izan ohi dituzte.

Animalia hau edozein baso motan bizi ahal da.

Zein animalia izan al da?

egilea: Ekain Larrañaga

DENBORAPASAK

ABE hitza aurkitu
Portadakoak ez du balio



Igarkizunak

1.- Elurrez egin
eguzkiaz desegin?



2.- Eutsirik makila
zabalik teilatua?

3.- Gizon txiki
txapel handi?

4.- Eguzkiak nora
zapiak hara;
ni ere orduan kanpora
hotza baitut odola

8.

Egilea: Jon Blanco

SENTSAZIO ZIRRAGARRIA

Nolako pena sartu zitzaidan Olentzerok gurasoei oparia ekarri ziotenean. Londresera joango dira hilabete barru eta amona Lolirekin pasatuko ditugu, nire arrebak eta nik, 4 egun penagarri horiek. Gau guztietan beraietaz pentsatuko dut eta opari eder-eder bat egingo diet.

Gauza batengatik ez naiz asko orduratuko, jakinez, aita eta oso ondo pasatzen ari direla Londresen.

Nik bakarrik eskatu diet bi kamiseta Ricardorenak bezala. Le we tuesen erositakoak, bakoitzak 5€ balio dutenak. Nik eta nire arrebak beste opari mota bat erosiko diegu eta etxera iristen direnean festa bat egingo dugu Ja, Ja, Ja!

Amona Loliri asko gustatzen zaio bizikletaz paseatzea donostia guztitik, txokolate bero bat hartzea etab. Orduan horrrek esan nahi du hori egin beharko dugula, eta ez naiz kejatzen zeren eta gauza horiek asko gustatzen zaizkit.

Zorte ona eman lagunok!!!

egilea:Jon Goenaga

IGARKIZUNAK

Elurrez egina
eguzkian desegin.

Gizon txiki
txapel handi.

Hego-polotik hegaztiak,
aztean beltzak, aurrean zurik;
hegan baterez oinez traketsak,
baina igerian oso trebeak.

Zein da etxean ixilik
eta basoan kantatzen duena?

egilea: Raquel Stefania

AHOKORAPILOAK

1-Baga, biga, higa, laga,
boga, sega, zahi, zohi, bele,
arma, tiro, punpjj

2-Akerrak adarrak okerrak ditu.
Adarrak akerrak okerrrak ditu.
Okerrrak akerrak adarrak ditu

3- Arre horra, aurrera arraioajj

4-Olagarroaren erro errea
larra errean gora.

egilea: Raquel Stefania

Hizki zopa

PAISES DE AMERICA

Tienes que buscar 10 paises que están colocados en horizontal y vertical.

A	R	G	E	L	I	A	Z	T	E
N	I	G	E	R	N	O	A	A	G
G	D	G	N	P	Q	H	I	N	I
O	E	H	I	S	T	U	R	Z	P
L	F	L	A	V	W	X	E	A	T
A	A	I	R	A	B	D	R	N	O
M	I	J	A	D	E	F	K	I	D
C	B	K	H	G	H	I	I	A	A
B	I	L	A	L	M	N	Ñ	O	H
A	L	M	S	S	U	D	A	N	C

egilea: Gerald Fara

BELARREKO DEABRRUA

Bazen behin gizon bat Patricio Repardo izenekoa. Askotan kopako txapela zeraman eta ez zen oso altua. Ile gutxi zuen, 78 urte zituelako. Bera oso edukatua zen.

Egun batean bere hirian, Madriden zegoen eta taberna batera joan zen txupito bat hartzera eta telebistan esan zuten etxe erorle batzuk zeudela Bilbon.

Orduan autobusa hartu eta azkar alabaren etxera joan zen. Bere alabaren etxea Bilbon zegoen. *Gugenheim* ondoan bizi zen, han egiten zuelako lan, eta bere jefearen jefea eta jefe horren jefeak, jefe bat zeukan eta jefe horren jefeak beste jefe bat zeukan eta haren jefea bere laguna zen. Azkar iritxi zen Bilbora. Berehala deitu zion bere alabari eta abixatu zion ze pasatzen zen Bilbon. Alaba berehala iritxi zen bus geltokira. Esan zion eguna iritxi zela belarreko deabrua esnatu zena eta alkateari abixatu zion. Alkateak esan zuen txorakeri bat zela eta ez zuela leiendetan sinisten.

Orduan haserre joan ziren udaletxetik. Berehala joan ziren Studio Mark izeneko toki batera. Han igarki bat egin zuten pasatzen zenari buruz. Bilboko biztanle guztiak oiukatzen hasi ziren:

-Ai ene! Munduak eztanda egingo du!
-Denok hilko gara!
-SOS!!SOS!!

JARRAITUKO DU...

egilea:Maria Etxezarraga